ataria

ASTEAZKENA
2021/02/10
9. urtea, 1.367. zenbakia
107.6 fm
www.ataria.eus
URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 83 €

Inauteri egunetarako ekitaldiak antolatu dituzten eragileak nahiz udaleko kideak, atzo eginiko aurkezpenean. JOSU ARTUTXA

Inauteri egunetarako kultur eskaintza indartu du udalak

Tolosako Udalak arduraz jokatzeko deia egin du, eta herritar askok jai dutela baliatuz, hainbat ekitaldi antolatu ditu; inauterien inguruko erakusketa, dokumentalak eta kontzertuak izango dira, besteak beste // 4

Tolosaldean eginiko artisau garagardoa

Eskualdeko lau gaztek Iparrabeer sortu dute; 1.000 litro ekoitzi dituzte eta harrera ona izan du // 5

Ordenantza bete baino ez duela egin esan du mankomunitateak

Aralarren azienda murrizteko salaketaren aurrean, aurreko legealdian onartutakoa aplikatu baino ez duela egin azaldu du // 6

Pentsiodunen mobilizazioa, larunbatean, Tolosan

Plaza Zaharretik abiatuko da manifestazioa, 12:00etan, eta herritarrak deitu dituzte parte hartzera; mobilizatzen jarraituko dutela diote // 2

107.6 fm · www.ataria.eus
ASTEAZKENA, 2021eko otsailaren 10a

Urrunketaren biktimak aitortu ditu Tolosako Udalak

Urtarrilaren 28ko osoko bilkuran onartu zuen mozioa, urrunketak eragiten duen «sufrimendua» aitortuz; Lasarte-Orian eta Soraluzen ere gauza bera egin dute

Irati Saizar Artola Tolosa

Euskal presoak Espainiako eta Frantziako kartzeletan urrunduta edukitzeak eragiten duen «sufrimendua» aitortu dute Lasarte-Oriako, Tolosako eta Soraluzeko udalek. Etxerat elkarteak proposaturiko mozioak babestu dituzte, herri bakoitzean euskal presoei bisitan joatean auto istripuz hil diren herritarrak gogoratuz.

Tolosaren kasuan, urtarrilaren 28an onartu zuten mozioa, eta gogoratu dute 38 eta 16 urte bete direla Arantza Amezaga eta Rosa Amezaga, batetik, eta Leo Esteban Nieto, bestetik, «euskal presoei zein haien senide eta gertukoei espetxe politikak ezartzen dieten urrunketa politikaren testuinguruan hil zirela». Arantza eta Rosa Amezaga 1982ko irailaren 9an hil ziren, Espainiako Auzitegi Nazionaletik bueltan, auto istripu batean, preso zuten senide baten epaiketa batera Madrilera joanak zirela. Leo Esteban Nieto 2004ko ekainaren 4an hil zen, Andaluziako Puerto de Santamariako kartzelatik bueltan, senide bati bisita egitetik Euskal Herrira zetorrela.

Tolosako Udalak adierazi du heriotza horiek ez zirela «kasualitatea» izan: «Bidaia luzeak egitea aukera bakarra dute presoen senideek eta lagunek bisita eskubidea bermatzeko, duela hiru hamarkada Frantziako eta Espainiako gobernuek euskal presoen aurkako urruntze politika martxan jarri zutenetik».

AURRETIK ERE GOGOAN

Azaroaren 10ean, Memoriaren Egunean, udala osatzen duten hiru alderdi politikoek kaleratutako adierazpen instituzional bateratua irakurri zuen Olatz Peon alkateak.

Egun horretan aipamen berezia egin zieten kartzelara Tolosako presoak bisitatzera zihoazela, auto istripuz hil ziren hiru senitartekoei. «Ezin ditugu ahaztu, horiek ere biktimak baitira; biktima guztiek izan behar dute tokia memorian, baita zoritxarrez dispertsioak eragindakoek ere».

GUTUNA

Mantsoegi doa, baina aurrera goaz presoekin batera

Urrunketaren eraginez presoen senideek pairatutako sufrimendua aitortu dute EAJ, EH Bildu eta PSE-EE alderdi politikoek Tolosako udal batzarrean.

Uste dut berebiziko garrantzia duela alderdiek adostu eta onartutako adierazpena, duela 30 urte baino gehiago aktibatutako euskal presoen urrunketak eta dispertsioak eragindako biktimen aitortza ezinbestekoa delako, inoiz gehiago gerta ez dadin. Etxerat elkarteak adeitasunez agurtu du konponbide eta bakearen bidean lortutako aurrerapauso garrantzitsu hau, euskal gizartearen lana eta konpromisoarekin batera, ekimen instituzionala eta akordio politiko, sindikal eta gizarte eragileenak ezinbestekoak direlako, behingoz, aro berrirantz abiatzeko, eta elkarbizitzan aurrera egiteko.

Nik esango nuke, gainera, bagoazela aurrera, astiro, baina aurrera goaz. Dispertsioaren biktimen errealitatearen baitan, bai Sara Fernandez zein Karmele Solaguren dispertsioaren biktima gisa aitortu ziren Iruñea eta Barañaingo udal plenoetan 2018an. Orain, Arantza eta Rosa Amezaga alde batetik, eta Leo Esteban Nieto bestetik, euskal presoei zein haien senide eta gertukoei espetxe politikak ezartzen dieten urrunketa politikaren testuinguruan hil zirela aitortu da Tolosan, 38 eta 16 urte betetzen direlarik. Eta Soraluzen eta Lasarte-Orian ere Iñaki Saez eta Asier Heriz, eta Argi Iturralde eta Iñaki Balerdiren heriotzen aitortza jaso da alderdi politikoen aldetik.

Orotara, 16 pertsona hil dira errepideetan, 16 senide eta lagun, dispertsio eta urrunketak ezarritako baldintzen eraginez. Eta ezin dugu ahaztu, oraindik ere, senideak egunero ateratzen direla errepideetara horrek suposatzen duen arriskuarekin; izan ere, urtarrilaren 30ean Soriako espetxean bisita egin ondoren, senide baten istripuaren berri izan genuen. Hau bukatu behar da. Betirako.

Ematen du, zorionez, pixkana gauzak aldatzera doazela. Madrilen Sanchezen gobernua dagoenetik, ehun preso baino gehiago lekualdatu dituzte Euskal Herritik gertuago dauden espetxeetara. Oraindik ere 25 preso baino ez dira Euskal Herriko espetxeetan.

Mantsoegi doa dena, baina, garrantzi handia dauka, nire ustez, alderdi eta eragileen arteko adostasunak gehitzeak. Testuinguru honetan, Tolosako mozioaren 4. puntuan jasotzen dena azpimarratu nahi dut hemen, izan ere, legedi arrunta eta normalizatutako espetxe politika bat aplikatzea proposatzen da. Presoen problematikari erantzun bat ematea ekarpena izango litzateke, dudarik gabe, elkarbizitza eraikitzeko.

Patricia Velez Etxerat elkarteko Gipuzkoako koordinatzailea

IRAGARKI LABURRAK

Lana

Garbiketa lanak. Tolosan garbiketan esperientzia duen pertsona baten bila gabiltza. Astelehenetik ostiralera lanaldi osorako. Gida baimena izatea ezinbesteko baldintza da. Interesatuek deitu 943 670 626 telefono zenbakira.

Zerbitzaria eta sukalde laguntzailea. Taberna-jatetxe baterako zerbitzari eta sukalde laguntzailea behar dira. Interesatuak bidali curriculuma *whatsapp* bidez 747 418 246 telefono zenbakira.

Zerkausian egin zuten prentsa agerraldia, atzo, pentsiodunek. I. S. A.

Pentsiodunek mobilizazioekin jarraituko dute

Donostian, Bilbon Gasteizen eta Iruñean bezala, Tolosan ere mobilizaziora deitu dituzte herritarrak, otsailaren 13an

Irati Saizar Artola Tolosa

Hego Euskal Herriko pentsiodunen mugimenduak deituta, manifestazioa egingo dute otsailaren 13an Tolosan, Plaza Zaharretik abiatuta, 12:00etan. Bilbon, Donostian, Gasteizen eta Iruñean ere egingo dituzte mobilizazioak. Eskualdeko pentsiodunen mugimenduak herritarrak deitu ditu parte hartzera.

Mobilizazio horietan euren aldarrikapenak Toledoko Itunean jasotzea eskatuko dute, besteak beste, gutxieneko pentsioa 1.080 eurokoa izatea eta jasangarritasun faktorea ezabatzea. Izan ere, salatu dute Toledoko Itunak pentsiodunen aldarrikapen nagusiak «baztertu» egin dituela eta Kongresuaren bozketaren ostean, «murrizketak ekarri zituzten 2011 eta 2013ko erreformek indarrean» jarraitzen dutela.

Esan dute orain arte egindako erreformak «ideia neoliberalean» oinarritu direla, pentsiodunek pentsio «oso altuak» dituztela eta denbora «gehiegi» bizi direla. «Pentsioen arazoa diru sarreretan dago, ez gastuetan; gure belaunaldirako eta etorkizunekoetarako horiek bermatzeak enplegu gehiago eta hobea eskatzen du, eta gure lanarekin sortze dugun aberastasuna ekitatez birbanatzea», arrazoitu dute pentsiodunek.

Hori horrela, Espainiako Gobernuari eta Kongresuari, zein EAEko eta Nafarroako Gobernuei eskatu diete, haien aldarrikapenak bermatuak izan daitezen beharrezkoa dena egin dezatela. Besteak beste, honako aldarrikapenak egin dituzte: «1.080 euroko gutxieneko pentsioa, pentsioen errebalorizazio automatikoa legez bermatzea, jasangarritasun faktorea eta 40 urteko kotizazioarekin erretiro aurreratuaren koefiziente murriztaileak indargabetzea, genero arrakalarekin amaitzea, pentsio plan eta funtsen zerga desgrabazioak ezabatzea eta Lanbide arteko Gutxieneko Soldata Europako Gutun Sozialean aurreikusitako 1.200 euroan ezartzea».

Eskualdeko pentsiodunen mugimenduak dei egin die herritarrei otsailaren 13ko mobilizazioetan parte har dezaten, eta bide batez, azken hiru urteetan egiten ari diren mobilizazioei jarraipena eman diezaien, «pentsio publiko, duin, eta bidezkoen aldeko konpromisoa berritzeko». Momentuz, honako eragile hauen atxikimenduak jaso dituzte: Batukada, ELA, LAB, TOPA, Zutani, Sortu, Ernai, EH Bildu, Dultzaineroak, Amarotz, Larramendi, Berazubi, Otsabio eta Tonttor auzo elkarteak, Asanblada Feminista eta Glaukoma musika taldea.

Eremu gorrian egon arren, tabernak eta jatetxeak ireki ahal izango dituzte

EAEko Auzitegi Nagusiak onartu du ostalariek jarritako helegitea, auziaren muina aztertu eta behin betiko erabakia hartu artean; erabakiarekin pozik azaldu dira ostalariak

Erredakzioa

Eremu gorrian dauden udalerrietako ostatuek zabaltzeko baimena izango dute aurrerantzean. Hala erabaki zuen atzo EAEko Auzitegi Nagusiak, ostalarien elkarteek jarritako helegite baten ondorioz. Irekitzen dutenek 20:00etan itxi beharko dute eta edukiera erdira murriztu. Ere berean, pertsonen arteko distantziak bermatu beharko dute, mahai bakoitzeko lau pertsona eseri ahalko dira eta ezingo da barran kontsumitu.

Hiru lurraldeetako ostalarien elkarteek jarri zuten Jaurlaritzaren aginduaren aurkako helegitea, iritzita «neurrigabea» dela eremu gorrian dauden udalerrietako ostatuak ixteko agindua. Atzokoa ez da behin betiko erabakia, ordea; denbora gehiago beharko du auziaren muina aztertu eta ebazpen bat emateko. Ez da lehen aldia ostalariei arrazoi ematen diela, halere; iazko abuztuan ere aintzat hartu baitzuen Bizkaiko eta Gipuzkoako ostalarien elkarteek ordutegiaren inguruan jarritako helegitea.

Amasa-Villabona ez dago eremu gorrian eta taberna irekita du Txurrut-eko Marijo Irazusta Ugartemendiak, baina pozik azaldu da «eremu gorrian dauden guztiengatik». «Oso gustura gaude, egoera hau jasanezina baita; denok egin behar dugu lan eta horrela ezin dugu. Gaixotasuna hor dago bai, baina lana egin behar dugu. Gu ez gara errudunak, herri txiki askotan gertatzen dena da familia batean familia bereko hiru lagunek positibo ematen badute herria eremu gorrira pasatzen dela eta ez da justua».

Tabernarien helegitea aintzat hartu du EAEko Auzitegi Gorenak. I.G.L.

Ostalariek diote euren lantokietan segurtasun neurriak betetzen direla eta ez direla positibo tasaren igoeraren errudunak. Pozik daude baina «beldur» dira; «agintariek dekreturen bat atera dezakete, eta horren beldur gara, baina orain, une honetan, pozik gaude». Erabakiarekin gustura dauden arren, ostegunero egiten dituzten mobilizazioekin jarraituko dutela esan du tabernariak. Bihar beraz 19:30ean manifestazioa egingo dute Errebote plazatik irtenda. Zizurkilgo ostalariek ere gauza bera egingo dute, eta bien arteko zubian ikusiko dute elkar.

Gobernantzarako ordenantza berriaren garapena, abian

Erredakzioa Tolosa

Tolosako Udalaren Legealdi Planean jasotako helburu eta ekintza estrategikoetako bat da herritarren ahalduntzea eta gobernantza eredu berriak sakontzea. Zentzu horretan, Gardentasun eta Gobernantzako ordenantza garatzea aurreikusi eta jaso zen 2019-2023 Legealdirako Kudeaketa Planean.

Tolosatzen proiektuaren barruan aurrera eramandako egitasmo guztiek gobernantza eredu berri baten eraikuntza ahalbidetzen dutela diote udaletik. Hortaz, ordenantza berriarekin urrats bat gehiago egin nahi du udalak, «erakundeetatik gizarte eta politika egiteko modu berrietan sakontzeko, eraldaketarako oinarriak lantzeko eta partaidetza oinarri duen kultura politikoa eta administrazioa sustatzeko helburuarekin».

Dagoeneko hasi dira dokumentua udal barnean lantzen. Uztailera bitarte gauzatuko dute prozesua, tolosarren parte hartzearekin, herritarrak lanketa honetan eragile aktiboak izatea lortu nahi baita. Barrura begirako epea urtarriletik martxora egingo dute eta kanpora begirakoa, hau da, herritarrekin kontrastatzekoa, martxotik apirilera. Lanketa hiru mailatan egingo dute; herritar antolatuekin, foro egonkorretako erakunde eta elkarteetako kideekin, eta norbanako edo herritar antolatu gabeekin.

GUTUNA

Nerabeak, jendartea eta agintariak

Lehenik gogoratzen hasi nahiko nuke, zu ere izan zarela gazte. Ez dakit nola kokatuko zenukeen zeure burua garai haietan egungoa gertatu izan balitz, nola barneratuko zenituen arauak edo zein neurritan lagunduko ote zenion bizilagunari. Niri, erantzukizun handiz jokatzen ari direla iruditzen zait, miresmena sortzen dit arauak betetzeko hartu duten jarrerak, eta nola ez Euskal Herri osoan zehar gazteek bultzaturik sortu diren zaintza taldeen sareek. Are miresgarriago, kontuan hartu ez dituen eta alternatibarik eskaini ez dien gizarte eta momentu honetan.

Jendartea, ordea, bere logika patriarkalean poliziaren antzera jarduten ari dela dirudi. Polizia ere oldarkor izan ohi baita adingabe bati belar pixka bat antzematean, aldiz, ez da ez ausartzen prostituzio sareen aurka joaten. Lau gaztek festa bat egin eta gure zaharren hiltzailetzat jotzen ditugu, gizarte honetako benetako kriminalei beren kaxa jarduten uzten diegun bitartean, bide batez, eztabaida gai garrantzitsuenak alboratuz. Gure egoa salbatzen jarraitzeko errazagoa baita zaurgarrienen aurka jotzea, eraldatzeko gai ez garen eta etsipena sortzen diguten erronka eta kriminal nagusiagoei aurre egitea baino. Izatez, honek zaurgarri eta ahul sentiarazten gaitu.

Badut beraz susmoa, gazteriaz gain, gizarte osoa ez ote den arduragabe, eta ondorioz, baita ditugun buruzagiak ere. Norberaren etxeko lanak eginak izan gabe gainontzekoei ardurak eskatzea ez baita oso jokaera arduratsua. Ezta pandemia hau sortu duen eta parean dugun erronka ekologiko kolosalaren aurrean ezikusiarena egitea. Gobernuan direnak kasu, Zaldibarko hondamendia kudeatzen 27 miloi euro baino gehiago gastatu dituzte iada; 14 helikoptero batean eta beste 4 Ertzaintzaren furgonetak erosten; EB-ko diru-laguntzak lagunartean banatzen ari dira; industriaren arazoak diren zaborren kudeaketarako erraustegi erraldoi bat eraiki dute; AHT-a, SuperSur-a eta Metroa eraikitzeko dirua lepo, eta orain hidrogeno berdea omen da ezinbestekoa euskal oasian.

There is not alternative (ez dago alternatibarik) zioen Margaret Thatcher-ek. Egun kontrakoa da, ez dago bizitza eta ongizatea bermatuko duen alternatibarik, desazkundea baino. Bidegurutzean ipini gaituen eta duin bizitzeko beharrezkoak ez diren kontsumo ereduak aldatu behar ditugu, gustuko izan ala ez. Sortu dugun hondamendi ekologikoa onartu, egoeraren egiazko diagnosi bat eginez akatsak identifikatu, eta aterabidea jorratu. Datorkigun errealitate eta etorkizun ilunari aurre egiteko, geure burua indartu eta bakoitzak bere ardurak betetzen hastea dagokigu.

Nerabeak salatzen ditugun bitartean, ez baikara gure buruzagi politiko eta agintari ekonomikoei oldartzen. Ez diogu aldaketa klimatikoari eta krisi ekologikoari garrantzirik ematen, ez dugu gure osasun, hezkuntza, elikadura, zaintza eta energia burujabetzarantz pauso irmorik ematen, eta botere ekonomikoen dependentzian sakontzen dugu, zor publikoa handituz. Gure ondorengoek, gazteek, jasan beharko duten zorra, gogoratu beharrik bada.

Bitxia da. Eraiki dugun gizarte heldugabe honen tankeran hazi eta hezi ditugun gazteak, gure erru, ezgaitasun, amorru eta gorrotoen helburu bihurtu ditugu. Erraza bezain erosoa. Arduragabekeria bikoitza, edo berbera. Atera kontuak. Eguneko zenbat denbora baliatzen dugu elkar salatzen, eta zenbat, kutsatzen gaituzten pantailen aurrean, norberaren erantzukizun politikoa ekiditen? Beraz, nor da nerabe?

Jon Irastorza Tolosa

Uholdeak ekiditeko lanen idazte-lana lizitatu dute

TOLOSA // Oria ibaiak ez du ahalmenik Tolosa herrigunean ur goraldiei aurre egiteko. Egoera irauli ahal izateko URA agentziak uholdeei aurre egiteko lanen proiektua idazteko kontratua lizitatu du. 118.950 euroko aurrekontua dute lanek eta 8 hilabeteko epea eman dute egikaritzeko.

Fremap eta Fudike enpresaren helegitea epaituko dute

TOLOSALDEA // Fudike enpresan lan egiten zuen eta biriketako adenocarcinomak jota hil zen Jose Manuel M.A.ren lan gaixotasuna onartu zuen Gizarte Segurantzak. Baina Fremap mutualitateak eta Fudike enpresak berak helegitea aurkeztu zuten. Bihar epaituko dute Donostiako Gizarte Arloko 2. epaitegian.

107.6 fm · www.ataria.eus
ASTEAZKENA, 2021eko otsailaren 10a

Kalean inauteririk gabe, etxean ez

Indarrean dauden neurriak kontuan izanik, datozen egunetarako kultur eskaintza areagotu du Tolosako Udalak, eragileekin elkarlanean; beste behin ere, arduraz jokatzen jarraitzea eskatu dute

Josu Artutxa Dorronsoro

Pasa den astean egin zuen azken agerraldi publikoa Tolosako Udalak, datozen egunetan neurriak errespetatzeko eta elkar zaintzeko eskatuz herritarrei. Atzo ere mezu bera zabaldu zuten inauterietako eragileen babesarekin. «Jai jendetsu eta parte-hartzaileak dira inauteriak. Orain, ordea, egoerari aurre egin ahal izateko zuhurtziaz eta elkartasunez jokatzeko ardura dugu, guztion osasuna baitago jokoan», esan du Izarne Iglesias kultura eta festa zinegotziak. Horregatik, keinu txikiena egitekotan ere, «ezarrita dauden neurriak errespetatuz egin behar dela» gogorarazi du.

Tolosar askok egun hauetan jai izango dutela jakinik, kultur eskaintza indartzea erabaki du udalak. Besteak beste, ostegunetik aurrera, inauteriei buruzko *Jeiki jeiki 2021* erakusketa bisitatzeko aukera egongo da Aranburu Jauregian. Gainera, etzitik aurrera (arratsaldez), aurtengo inauterietako kartela eskuratzeko aukera izango da kultur etxean eta musika eskolan.

Udalak, bestetik, inauteriei buruzko dokumental historiko bat egiteko baliatu nahi du urte hau. «Herritarrek etxean izan dezaketen materiala bilduko dugu», azaldu du zinegotziak. Material bilketaren inguruko xehetasunak aurrerago emango dituzte.

FESTAZALEEN AHOTSA

Aipatutako erakusketaz gain, egoerak eskatzen dituen prebentzio neurri guztiak zorrotz betez, herriko zenbait eragilek aberastu dute kultur eskaintza. Sarean (*www.tolosa.eus*-en eta Youtubeko Tolosa Kultura kanalean) edo telebistaz (28 Kanala) eskainiko dira saio gehienak. Hala ere, Leidorren ere izango da ekitaldi ezberdinez gozatzeko aukera.

Kabi-Alai elkarteko kideek, adibidez, *Hausterre pasatzen denean* dokumentala egin dute. Ostegunean eskainiko da, elkartearen Facebook orrialdean, *www.tolosa.eus*-en eta 28 Kanala telebista katean, 12:00etatik aurrera. «Inauterizale asko elkarrizketatu ditugu eta aurreko urteetako irudi eta bideoak erabili ditugu osagarri modura», aurreratu du Ainhoa Onsalo elkarteko lehendakariak.

Bestalde, Arpegi taldeak, azken hamarkadako saioak laburbiltzen dituen ikus-entzunezkoa prestatu du. Ostiralean eta larunbatean eskainiko dute Leidorren, eta beranduago, Youtuben egongo da ikusgai. «Guretzat oso urte gogorra izan da, bost kide galdu ditugulako. Denbora luzez aritu gara jaialdia egin ala ez eztabaidatzen, eta azkenean, bideo bat egitea erabaki dugu; hala ere, sorpresaren bat edo beste izango da», aurreratu du Alejandro Diez Arpegiko ordezkariak.

INAUTERI DOINUAK, HAMAIKA MODUTAN

Dokumentalez gain, musikak ere izango du tokia datozen egunetan. Tolosako Udal Musika Bandak, adibidez, bi kontzertu grabatu ditu, asteburuan, Gure Zirkuko karpan, eta *online* eskainiko dira, ostiralean eta igandean. «Lehen kontzertua, kaldereroetako eta danborradetako errepertorioarekin osatu dugu; bigarrena, berriz, Tolosako inauterietan kalera ateratzen diren txarangen kantuekin», dio Jone Rezola bandako kideak. Grabaketetan parte hartu duten herritarrei eskerrak emateaz gain, zirkuko langileek bandarekin izan duten jokabidea «txalotzekoa» izan dela azpimarratu du Rezolak.

Galtzaundi Euskara Elkarteak, bestalde, bere 30. urteurrena ospatzeko, *Galtzaundi 30 urte* izeneko emanaldia prestatu du iganderako. «Galtzaundiren figurak jai hauetan duen garrantzia kontuan izanik, inauterien bueltako saio bat antolatzea erabaki genuen», esan du Igor Agirre Galtzaundiko kideak. Ekitaldi kultural bat izango dela gogorarazi du. «Ikuskizun bat izango da, neurri guztiak bermatuz ospatuko dena. Et Incarnatus orkestraren kontzertua izango da, baina taldeaz gain, gonbidatu bereziak eta inauterizale ugari ere izango dira. «Abeslari eta musikari ezagunak izango dira tartean».

Gainera, Galtzaundirena ez da saio horretan ospatuko den urtemuga bakarra izango. Izan ere, 25 urte betetzen ditu aurten Et Incarnatus orkestrak; eta iaz mende erdia bete zuen Incansables txaranga ere Leidorreko kontzertuan izango da. «Berritzailea izango da, txaranga bat orkestra batekin batera inauterietako doinuak jotzen entzuteko aukera izango baita», nabarmentzen du.

Azkenik, Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak, inauterietako abestien bertsioak egin eta bideo batean jaso ditu, Udaberri Dantza Taldearen eta Hodeiertz Abesbatzaren parte hartzearekin. «Kontzertua kalean egitea zen hasierako asmoa, baina azkenean bideo bat egitea erabaki dugu. Une honetan ezin ditugu ez entseguak egin, ezta kontzertuak eskaini ere; hortaz, etxean grabatutako bideoa bidali du abeslari bakoitzak», azaldu du David Azurzak.

Guztira, 160 lagunek hartu dute parte inauterietako lau abestiz osatutako suite baten grabaketan. *Iriyarena, Pastelero, Pello ziri-ziri* eta *Baratzeko pikuak* dira kantu horiek. «Instrumentazio aldetik ere ezberdina da, boskote batekin osatu baita grabaketa, ohiko txaranga edo bandak alde batera utzita. Gainera, Egan taldeko Xabier Saldias bakarlariak ere kolaboratu du».

Bihartik aurrera egongo da ikusgai 'Jeiki Jeiki 2021' erakusketa, Aranburu Jauregiko beheko solairuan. JOSU ARTUTXA

2021EKO INAUTERI EGUNETARAKO KULTUR ESKAINTZA

Otsailak 11, osteguna

12:00. Kabi-Alai elkartearen *Hausterre pasatzen denean* dokumentala, sare sozialetan eta 28 kanala telebista katean.
19:00. Zine foruma, Leidorren: *Para Sama*.

Otsailak 12, ostirala

12:00. Tolosako Udal Musika Bandaren kontzertua, sarean: *Kaldereroak eta danborradak*.
19:00. *Arpegi 2009-2020* ikus-entzunezko lana ikusteko aukera, Leidor aretoan.
20:00. Inauterietako abestiak, Gipuzkoako Abesbatzen Federazioaren eskutik, Hodeiertz abesbatzaren eta Udaberri dantza taldearen parte hartzearekin.

Otsailak 13, larunbata

12:00. Pablo Dendaluzeren *Inauterikeriak* dokumentala, sarean.
12:00. *Arpegi 2009-2020* ikus-entzunezko lana ikusteko aukera, Leidor aretoan.

Otsailak 14, igandea

12:00. *Arpegi 2009-2020* ikus-entzunezko lana ikusteko aukera, sarean.
12:00. *Galtzaundi 30 urte* ikuskizuna, Leidor aretoan.
16:00. Haur zinema Leidorren: *Mi amigo pony*.
19:00. Zine emanaldia: *El inconveniente*.
19:00. Udal Musika Bandaren kontzertua, sarean: *Tolosako inauterietako txarangak*.

Otsailak 15, astelehena

12:00. Tolosako Udal Musika Bandaren 2020ko Pregoi Kontzertua.
16:00. Haur zinema, Leidorren: *El rey elefante*.
19:00. Zinema: *Vacaciones contigo... y tu mujer*.

Otsailak 16, asteartea

16:00. Haur zinema: *El rey elefante*.
19:00. Zinema: *Vacaciones contigo... y tu mujer*.

Otsailak 17, asteazkena

19:00. Euskal Barrokensemble taldearen kontzertua, Leidorren.

Otsailak 18, osteguna

19:00. Zine foruma, Leidorren: *Sin Senas particulares*.

Iparrabeer artisau garagardoa sortu dute eskualdeko lau gaztek. 1.000 litro ekoitzi dituzte eta uste baino harrera hobea izan dute. Bigarren garagardo baten errezetan lanean ari dira gaur egun

Neurrira egindako garagardoa

Jon Miranda

Zapore zitrikoa du. Lupulazio aromak IPA estiloko garagardoa gogorarazten du, baino honek izaten ez duen garraztasun puntua du. Kolore hori bizikoa da, garbia eta gardena. «Hemen tabernetan normalean edaten dugun garagardoaren estilokoa da, baina hobea», esan du Ioritz Beldarrainek, Iparrabeer artisau garagardoaren egileetako batek.

Beldarrain anoetarrarekin batera, Borja de la Iglesia irurarrak eta Iñaki Aranburu eta Iñaki Murillo ibartarrek abiatu zuten proiektua duela urte eta erdi inguru. Garagardozale izatetik garagardogile izatera pasa ziren Aranburuk azaldu duenez: «Garagardoa edateaz aparte, gure bizitzarekin probetxuzko zerbait egin behar genuela erabaki genuen. Zergatik ez gure garagardoa egin? Aparteko pretentsiorik gabe hasi ginen, artisau garagardoaren mundu honetara gerturatu nahian, eta gehienbat, ikasteko gogoz».

Beldarrainen Anoetako etxean muntatu zuten laborategia eta edatea gustatuko litzaiekeen garagardo horren errezetaren bila hasi. «Gaur egun Interneten informazio nahikoa badago eta lehengaiak eskuratzea ere ez da zaila. Inbertsio txiki bat egin genuen tresneria erosteko, eta gero, batez ere denbora inbertitu genuen nahi genuen garagardo mota lortzeko», esan du Beldarrainek. Zailena etxean baldintza egonkorrak lortzea dela dio garagardogileak: «Nahikoa da prozesuan zehar aldaketa txiki bat egotea, pauso batean behar baino minutu bat gehiago pasatzea, garagardoa ezberdin ateratzeko».

Dena den, Tolosaldeko lau gazteek argi zuten zein edari mota lortu nahi zuten. «Artisau garagardoa esaten dugunean jendeari zapore handikoak etortzen zaizkio burura eta guk horretatik ihes egin nahi genuen», dio Aranburuk. Beldarrainek gaineratu du moldea hausten saiatu direla euren garagardoarekin: «Badirudi artisau garagardoek beti IPA estilokoak izan behar dutela, hori dago zabalduta. Baina guri iruditzen zaigu badaudela bestelakoak ere eta horretan saiatu gara. Garagardo sinplea da, baina badu bere zaporea, berezia da».

Aranburu eta Beldarrain ekoitzi duten artisau garagardoa eskuetan dutela. J. M.

MERKATURA EGOKITUTAKOA

Azkeneko hamarkadan hazi egin da garagardoaren kontsumoa eta artisau erara egindakoek gorakada nabarmena izan dute. Iparrabeer egiten duten gazteek uste dute, hemendik urte batzuetara ohikoa izango dela tabernetan artisau garagardoa eskatzea. «Gaur egun iturritik ia ez da horrelakorik eskaintzen, hemen Tolosaldean behintzat ia ez dago aukerarik. Beste herrialdeetan ohitura handiagoa dute terraza batera joan, lasai eseri eta garagardo on bat dastatzeko. Hemen hedatuago dago poteoa eta ohikoagoak dira horretara bideratutako garagardo arinagoak», aipatu du Beldarrainek.

Euren garagardoa sortzerako orduan merkatua ulertzen saiatu direla nabarmendu nahi izan du Aranburuk: «Badakigu jendea zein garagardotara ohituta dagoen eta horretara egokitzeko ahalegina egin dugu. Agian, artisau garagardoa gustatzen zaionari gurea motz geratuko zaio, baina poteoan kaña batzuk hartzera ohituta dagoenari, berezia egingo zaio eta artisau garagardoetara gerturatzen hasteko bidea emango dio». Zubi lana egiten du Iparrabeer-ek: «Tabernako barran zutik edan daiteke, baina baita terraza batean eserita; hartu daiteke ohiko garagardo bezala, baina baita ukitu berezia duen garagardo gisa».

> **«Badakigu jendea zein garagardoetara ohituta dagoen eta horretara egokitzeko ahalegina egin dugu»**
>
> IÑAKI ARANBURU
> IPARRABEER

> **«Hemen tabernetan edaten dugun garagardoaren estilokoa da, baina hobea»**
>
> IORITZ BELDARRAIN
> IPARRABEER

Garagardo mota bakarra merkaturatu dute eskualdeko gazteek orain arte, baina bigarrengo baten errezeta lantzen ari dira orain, garagardo gorria izango da. «Lehenengo garagardoak zein bide egiten duen ikusi ondoren aztertuko dugu bigarrengo hau merkaturatu edo ez. Guri gorri hau gehiago gustatzen zaigu».

1.000 LITRO HIRU HILABETEAN

Lau laguneko taldea ondo antolatu da Iparrabeer sortzeko. Bi kide garagardogintzaz arduratzen dira, beste batek finantzak daramatza eta azkena gehiago arduratzen da merkaturatzeaz. «Oraingoz lan talde honekin nahikoa dugu, ekipo ona sortu dugu eta arlo profesionalean ikasitakoarekin zerikusia duten zereginetan aritzen da gutako bakoitza», esan du Aranburuk.

Behin etxean garagardoaren errezeta findu ondoren, aurreko urteko udaberrian, itxialdian geundela erabaki zuten taldekideek saltoa eman eta euren edaria merkaturatzea. Beldarrainek azaldu duenez behin kopuru batetik gora ekoizteko azpiegitura handiagoa behar izaten da eta orduan hasi ziren beste garagardogileekin hitz egiten. «Azkenean Mala Gissonakoekin jarri ginen harremanetan eta erabaki genuen Oiartzunen, haien egoitzan ekoiztea gure garagardoa. Udazken hasieran egin genuen lehen tiraldia».

1.000 litro ekoitzi dituzte eta urritik hona ia dena saltzea lortu dute. Beldarrain eta Aranburu harrituta agertu dira euren garagardoak izan duen harrerarekin. «Jendeari gustatu egin zaio eta oso pozik gaude. Gainera, kontuan hartu behar da egoera ez dela erosoena. Urrian garagardoa tabernetan saltzen hasi ginen eta berehala osasun egoeragatik itxi egin behar izan zituzten». Anoeta, Ibarra, Tolosa, Villabona eta Zizurkilgo tabernetan dastatu daiteke, dagoeneko, Iparrabeer.

Tabernetan ez ezik, etxeetara ere banatu dute euren garagardoa. Eskariak Instagram bidez jaso dituzte gehienbat, baita telefonoz ere. «Hemen gertuan gu aritzen gara kaxak banatzen eta Bilbo, Iruñea edo Madrildik ere jaso ditugu eskariak. Kasu horietan bidalketak prestatzen ditugu». Prezio «konpetitiboa» lortu dutela diote Beldarrain eta Aranburuk. 33 zentilitroko botila 3 euroan edo 3,5 euroan saltzen dute, tabernaren arabera, eta 12 botila daramatzan kaxa 35 euroan.

«Argi genuen produktuak ona izan behar zuela eta horrekin batera ondo saldu behar genuela», esan du Aranburuk. Ahalegin berezia egin dute garagardoaren irudia izango dena pentsatzen eta sare sozialetan euren presentzia bermatzen. Aurki webgune bat prest izango dutela azaldu dute Iparrabeer-eko kideek. *Ez galdu norantza* leloa aukeratu dute garagardoarentzat eta bizi ditugun garaiotarako lelo «ezin aproposagoa» dela deritzo Beldarrainek. «Iparra, leloarekin ongi datorrelako; Iparrak, egiten dio IPAri erreferentzia garagardo motari, nahiz eta oraingoz ez dugun horrelakorik landu; Iparra, Euskal Herria iparraldean dagoelako. Izen egokia iruditu zaigu».

Irati Martinezek lagundu die logoa eta garagardoaren irudia osatzen, eta oro har, orain arte, lagun artean aritu direla nabarmendu dute. Horrela jarraitzeko asmoa dute. Beste 1.000 litro ekoitzi nahi dituzte laster eta bigarren garagardoa daukate buruan. «Tolosaldeak ez du garagardo erreferentzialik eta guri gustatuko litzaiguke leku hori hartzea». Iparra galdu gabe, argi dute norantza.

107.6 fm · www.ataria.eus
ASTEAZKENA, 2021eko otsailaren 10a

Ordenantza aplikatu baino ez duela egin dio mankomunitateak

Enirio-Aralar Mankomunitateak abeltzainen 134 eskaera jaso ditu, eta animalia kopurua mugatzeko gutuna 17k jaso dute, aurreko legegintzaldian onartu zen araua betearaziz

Eneritz Maiz Etxarri

Abeltzainen artean zalaparta sortu zen pasa den astean Enirio-Aralar Mankomunitateak ganaduzaleei bidalitako gutun bat tarteko. Enirio-Aralar Mankomunitateak jakitera eman duenez, «aurreko legegintzaldian onartu eta indarrean dagoen ordenantza aplikatu baino ez du egin mankomunitateak, eta erabaki hori ez da legegintzaldi honetan hartu, aurrekoan baizik».

Mankomunitateak Aralarren azienda murrizteko duen helburua salatu zuten Aralarko Baserritarren Elkarteak eta EHNE eta Enba sindikatuek. Adur Ezenarro Enirio-Aralar Mankomunitateko lehendakariak dioenez, «orain arte, utzikeriagatik edo inork ez du aplikatu ordenantza hori, eta ordenantzak muga batzuk jartzen ditu. Nik ez ditut jarri muga horiek, eta ni beraiek erabaki zutena betearazten bakarrik ari naiz».

Aipatu ordenantza 2017ko apirilaren 19ko ohiko bilkuran onartu zuten, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta dago 2017ko maiatzaren 16an. Enirio-Aralar Mankomunitatearen Zuzendaritza Batzordeak Larre eta Txabolen Ordenantzari hasierako onarpena 2016ko urriaren 19an eman zion ohiko deialdian egindako bilkuran. «Iragan legegintzaldian onartutako ordenantzak arautzen ditu Mankomunitateak ematen dituen baimenak, eta horretarako baldintza eta eskakizunak ezartzen ditu», esan du mankomunitateak.

Iaz egin zuten larre irekierako une bat. I. G. L.

MUGA GAINDITUAK, BI BAINO EZ

Abeltzainen eta artzainen artean 2021 urterako 134 eskaera jaso ditu mankomunitateak; «horietatik 17ri bakarrik eskatu zaie iragan legegintzaldian onartutako ordenantzaren 12. artikuluan ezarritako baldintzak betetzea», azaldu du Ezenarrok.

134 eskaera horietatik bakar bati ahuntzen kudeaketa plana eskatu diote, eta aurkeztu du dagoeneko. Beste hiru abeltzaini nekazaritzatik eta abeltzaintzatik urteko etekin gordinen %75 egiaztatzen duen ziurtagiria eskatu diete, eta horiek ere aurkeztu dute.

«134 eskaeretatik bi bakarrik dira, bi baino ez, ordenantzak ezarritako mugak gainditzen dituztenak», azaldu du lehendakariak, eta bi horiei bakarrik eskatu diete ezarritako mugetara jaistea, gainerako guztiek egin bezala.

ZENBAKIEN ALDERAKETA

ABEREAK	2020	2021
Behiak	985	964
Ardiak	14.885	14.382
Ahuntzak	2.536	2.551
Behorrak	862	726

Aralarko larreen erabilera egiteko egin diren 134 eskaeratatik hamaika dira ustiategia mankomunitatea osatzen duten 15 udalerrietatik kanpo dutenak. «Horrela erabaki zen bere garaian, mankomunitatea 15 udalerrik osatzen dugu, eta udalerri horietakoak direnek eta ustiategia bertan dutenek lehentasun eta pribilegio batzuk dituzte», azaldu du Ezenarrok. Kanpotik datozenek, beste baldintza batzuk bete behar dituzte; «horiei ere ordenantzak ezarritako baldintzak helarazi zaizkie». Ardien kasuan ez dago aldaketarik, baina ganadu larria, hau da, behor eta behiak ekartzeko eskubiderik ez die aitortzen ordenantzak. «Murrizketa ez da orokorra. Ardiekin berdin jarraitzen dute, baina ez zaie uzten, esaterako, behiak ekartzen», argitu du.

BETEARAZTEKO ESKAERA

Artzain askok ordenantza betetzen duela azpimarratu du mankomunitateak, eta artzain askok ordenantza betearazteko eskatu dietela dio: «Ordenantza betetzen duten artzain askok eskatu dute ordenantza betetzea, izan ere, buru gutxien duten artzainak eta abeltzainak kaltetuak ateratzen direlako ordenantzak ezarritako mugak gainditzen dituztenen aurrean. Larreen banaketa egiterakoan buruen arabera eskubide gehiago aitortzen zaizkie eta laguntzak horren arabera banatzen dira». Ezenarrok gaineratzen duenez, «muga gainditzen dutenei baimena ematen baldin bazaie muga gaindituagatik, gero diru laguntzak eta larre banaketak buruko egiten direnez, gainera, mugak urratuagatik gehiago jasotzen dute».

Ardien eskaerak beherantz egin duela diote, eta ordenantza betearazita, «artzainak, batez ere artalde txikienak dituztenak gehiago babestea lortzen da. Diru laguntzen banaketa ere orekatuago da, eta hektarea gehiago jasoko dituzte banaketan».

Ane Gebararen ipuin kontaketa, bihar, kultur etxean

ALEGIA // Ane Gebara ipuin kontalaria Alegiako kultur etxean izango da, bihar. Ipuin kontaketa saioa 17:00etan hasiko da areto nagusian, eta 4 eta 7 urte bitarteko haurrei zuzendua izango da. Emanaldira joan nahi dutenek, 16:45erako kultur etxeko sarreran egon beharko dute, sarrera segurtasun neurri guztiekin egin ahal izateko.

Arritzagarako bidean ondo aparkatzeko eskatu du udalak

AMEZKETA // Azken hilabeteetan Arritzagako minetara joateko pista hasieran jendeak kotxeak gaizki aparkatuta uzten dituelako arazoak sortu direla ohartarazi du Amezketako Udalak. Horren eraginez, inguruko baserritarrak beraien traktoreak edo kamioiak pasa ezinik ibili dira. Aparkatzea debekatuta dagoela esateko seinalea jarri dute, kilometro batera ondo egokitutako aparkalekua dagoela adieraziz.

Etxebizitzan edo garajean interesatuak izena eman behar du

AMEZKETA // Amezketako Udalak duela egun gutxi aurkeztu zuen Fernando Amezketarraren plazan etxeak eta lur azpiko garajeak egiteko dagoen proiektua. Udaleko webgunean jarri ditu behin-behinekoak diren planoak eta informazioa. Etxebizitzak eta garajeak eskuratzeko dagoen interesa aztertzeko izen ematea jarri dute, eta 943 65 35 46 telefono zenbakira deitu behar da. Garajeak egitea erabakitzen bada orduan aurkeztuko dituzte bai planoak eta baita prezioak ere.

Hilberriak eta urteurrenak

Joxepa Etxeberria Garmendia

(Inaxio Irastorzaren alarguna)

Atzo hil zen, Zaldibian, 107 urterekin.

Egun sentian sua piztuta
harturik beti erratza
zu ziñen Martinarotzaneko
arima eta ardatza.
Ehun eta zazpi urtez entzuna
tik-tak bizian orratza
bihotz oroimen dira taberna
atari eta baratza.
Mende aldi hau joan bezala
pake pakean zoatza.

Zure bilobak: Joxe Martin (†), Koro eta Xabier, Mina eta Juan, Ixabel eta Martin (†), Begoña eta Iñaki, Josune eta Karlos, Xanti eta Arantxa, Angeles eta Joseba, Patxi eta Eider eta Iñigo; birbilobak: Amaia eta Igor, Jon eta Rocio, Mikel, Izarne eta Eneko, Leire eta Joseba, Amets, Aiora, Aitor, Axier, Mikel eta Uxue, Goiatz, Izar eta Haitz; eta herenilobak: Eneko, Sara eta Arai.

ZALDIBIAn, 2021eko otsailaren 10ean

ataria n jarrita Urola Kostako eta Goierriko Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 110 € • **Harpidedunentzat 55 €**
HANDIA (124mm X 64mm): 160 € • **Harpidedunentzat 80 €**
ESKERTZA (38mm X 64mm): 60 € • **Harpidedunentzat 30 €**
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu •
Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu

Zortzi domina Tolosa CF-ko atletentzat, Euskadikoan

Urrezko lau domina, zilarrezko hiru domina eta brontzezko bat lortu dituzte

Erredakzioa Tolosa

Tolosa CF-ko hamazazpi atletak parte hartu zuten pista estaliko absolutu mailako Euskadiko Txapelketan, orain bi asteburu. Guztira zortzi domina lortu zituzten, horietatik lau urrezkoak, hiru zilarrezkoak eta bat brontzezkoa.

Joseba Olaetxeak lortu zuen urrezko dominetako bat, 1.500 metrotan, 4.01,50 denborarekin marka pertsonala eginez. Paula de Juanek 200 metrotan lortu zuen urrea, 25,85 eginez eta marka pertsonala lortuz. Ander Urangak 200 metrotan irabazi zuen, 21,86ko markarekin. Laugarren urrea Julen Martinek lortu zuen, 60 metro hesietan, 8,59 eginez eta marka pertsonala lortuz.

Zilarrezko dominetako bat 60 metro hesietan izan zen, Lander Gilek lortua, 8,90 denborarekin. Izaro Perurenak lortu zuen beste zilarrezko domina, 800 metrotan, 2.17,23 denborarekin marka pertsonala eginez. Hirugarren zilarrezkoa, Maialen Muñozek lortu zuen, 3.000 metrotan, 10.15,87rekin klubeko errekorra lortuz. Brontzezko domina Eunate Martinez de Rituertok lortu zuen, altuera jauzian, 1,64 metrorekin.

Parte hartu zuten beste atletek ere emaitza nabarmenak lortu zituzten. Ainhoa Gibelalde laugarren izan zen 60 metro hesietan, 9,00rekin marka pertsonala eginez. Ibone Ezeizabarrena bosgarren izan zen 1.500 metrotan, 4.46,27rekin marka pertsonala eginez. Jon Ander Aurkiak 400 metrotan 50,95 egin zuen, marka pertsonala lortuz. 400 metrotan ere Ainara Lakuntzak marka pertsonala egin zuen, 1.01,93 eginez. Proba berean Maddi Perurenak 1.03,78ko denbora egin zuen.

Lander Gil eta Julen Martin, 60 metro hesien probako podiumean. ATARIA

Nora Ituartek 60 metrotan parte hartu zuen, 7,88 eginez. Proba berean, Joseba Larraurik 7,39 egin zuen. Iker Martinez 800 metrotan lehiatu zen, 2.04,56ko denbora lortuz. Unai Hernandezek 1.500 metrotan parte hartu zuen, 4.20,29ko denbora eginez.

OKOMO, ESPAINIAKO KOPAN

Asteburuan, Bartzelonako Sant Jordi pabiloian egin da Espainiako Kopa, pista estaliko kluben arteko lehiaketarik garrantzitsuena. Bertan parte hartu du Atletico San Sebastian klubak, eta Maria Felisa Okomo Tolosa CF-ko atleta beraiekin lehiatu da, Tolosako klubak Donostiakoarekin lotura baitu. Pisu jaurtiketan lehiatu da Okomo, eta bosgarren postua lortu du, 12,90 metroko jaurtiketarekin.

GIPUZKOAKOA, ERDI JOKATUTA

Pista estaliko absolutu mailako Gipuzkoako Txapelketak bi jardunaldi izan behar zituen, baina lehenengoa bakarrik izan zen balekoa, urtarrilaren 23koa. Asteburu honetan zen jokatzekoa bigarren jardunaldia, baina Donostia eremu gorrian zegoenez, ezin izan zen ofizialki Gipuzkoako Txapelketa egin, neurri horrekin Gipuzkoako Federazioak ez baitu eskumenik txapelketak antolatzeko. Hori horrela, aukera askeko proba moduan parte hartu ahal izan zuten atletek, Euskadiko Federazioa antolatzaile moduan arituz.

Bai Gipuzkoako Txapelketaren lehen jardunaldian zein aukera askeko probetan, Tolosa CF-ko atleta ugarik parte hartu dute, zehazki 70tik gora lehen jardunaldian. Izaro Perurenak zilarrezko domina lortu zuen lehen jardunaldi horretan 1.500 metrotan, 4.41eko denbora eginez.

Altuna III.ak puntuak pilatzen jarraitzen du

Mariezkurrenarekin batera bosgarren garaipena lortu du, 22-21 irabaziz Peña II-Albisu bikoaren aurka

Erredakzioa

Jokin Altunak eta bere bikotekide Mariezkurrena II.ak partidak irabazten jarraitzen dute Binakako Pilota Txapelketan, oraingo honetan Jon Ander Peña eta Albisuren aurka tanto bakar bategatik izan arren. Hori horrela, bosgarren puntua lortu dute dagoeneko, eta sailkapenean bigarren postuan doaz, lehenengoekin berdinduta. Jon Ander Peñak eta Albisuk beste behin erakutsi dute kontuan hartzeko bikotea dela, eta hiru punturekin geratzen dira oraingoz, sailkapenean laugarren izanik. Peñak partidaren bukaeran azaldu zuenez, «ez da partida gogorra izan, partida txarra izan da nire ustez, baina bukaeraraino borrokatzen jakin dugu. Azken txaparengatik oso triste, baina tanteoa nahiko ona izan da eta horrekin geratu beharko dugu».

Iñaki Artola oraindik ez da bueltatu lesiotik, eta datorren asteburuan ere ez du jokatuko. Bere ordez Bengoetxea VI.a ari da jokatzen eta Arangurenekin batera lehen garaipena lortu dute, hain justu, Erik Jaka eta Martijaren aurka. Aurreko partidan bezala, 21-22 bukatu zen norgehiagoka hori ere. Orain sailkapenean bi bikoteak daude puntu bakarrarekin, baina Jaka eta Martija geratu dira azken postuan, tanto kopuruengatik.

Promozio mailakoari dagokionez, Iker Elizegik lehen garaipena eskuratu du. Oraingo honetan Arteaga II.aren ordez Bakaikoa izan du aurrelari, eta 22-20 irabazi diote Egiguren V-Ruiz bikoteari. Lehen puntu hori lortu arren, azken postuan jarraitzen dute Arteaga II-Elizegik.

SAILKAPENAK

LEHEN MAILA

1. Elezkano II – Zabaleta	5–1
2. **Altuna III** – Mariezkurrena II	5–1
3. Olaizola II – Rezusta	4–2
4. **Peña II** – Albisu	3–3
5. Ezkurdia–Ladis Galarza	3–3
6. Urrutikoetxea – Imaz	2–4
7. **Artola** – Aranguren	1–5
8. **Jaka** – Martija	1–5

PROMOZIO MAILA

1. Salaberria–O. Etxebarria	6–0
2. Zabala – Erostarbe	5–1
3. Elordi – Garmendia	4–2
4. Larrazabal–Eskiroz	3–3
5. Zubizarreta III – Uriondo	2–4
6. Egiguren V – Ruiz	2–4
6. Alberdi – Salaverri II	1–5
8. Arteaga II – **Elizegi**	1–5



Jokin Altuna, artxiboko irudi batean. I.G.L.

DATORREN ASTEBURUA

Zazpigarren jardunaldia izango da jokoan asteburu honetan. Larunbat arratsaldean, Iruñeko Labrit pilotalekuan Jaka-Martika eta Peña II-Albisu izango dira aurrez aurre. Jaialdi berean, promozio mailan, Arteaga II-Elizegi eta Salaberria-O. Etxebarria ariko dira elkarren aurka. Astelehen gauean, Idiazabalgo Igarondo pilotalekuan, jokatuko du Altuna III-Mariezkurrena II bikoteak eta aurrean izango dituzte Bengoetxea VI.a eta Aranguren. Jardunaldi horrekin ligaxkaren lehen itzuliari amaiera emango zaio.

ASTEAZKENA, 2021EKO OTSAILAK 10
Argitaratzailea: Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022. villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaldea: 687 410 022. anoetaldea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 11 32. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46

www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA 107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:
Tolosaldeko gizarte eragileak

ASTEAZKENA 10

AGENDA

Deialdiak

Tolosaldea. *Internet bidez lana aurkitzeko erremintak* ikastaroa, 09:00etan, Lehiberrin.
Tolosaldea. Bezeroari arreta ikastaroa, ERTEn dauden langileak formatzeko, 15:15ean, Lehiberrin.

Emanaldiak

Tolosa. Aukeran dantza taldearen *Biz Hitza* ikuskizuna, Leidor antzokian, 19:00etan.

Erakusketak

Tolosa. *Sorginak!* erakusketa Aranburu jauregian, EmPoder Arte elkarteak eta Tolosako Berdintasun sailak antolatuta.
Tolosa. Topic zentroak aldi baterako erakusketa berria du: *Gizonak, emakumeak eta txotxongiloak*.

28 KANALA

08:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!
11:30. Gaurkoan Tolosaldetik
16:30. Harri salda
17:30. Gaurkoan Tolosaldetik
22:00. Urrutiajunbe (Euskara)

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Goizeko magazina: Prentsari begira, eguraldia, kolaboratzaileen tarteak...
15:00. Desafioa. Herri kirolak Joxe Angel Sarasolarekin.
16:00. Zebrabidea. Magazina.
20:00. (H)ari naizela. Bertsolaritza, Imanol Artola *Felix*-ek gidatuta.

FARMAZIAK

Gaur

VILLABONA. Egunekoa. Juan Maria Sanchez Alias. Kale Berria, 34. 943 69 11 30.
TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi kalea, 6. 943 67 51 18.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Kaskarretik hasiko dugu eguna baina orduek aurrera egin ahala hobetuko du. Goizaldean eta goizean euri zaparrada batzuk izango dira. Eguerditik aurrera, ordea, atertu eta ostarte batzuk zabalduko dira. Haizeak mendebaldetik joko du eta tenperatura maximoak pare bat gradu jaitsiko dira, 11-13 graduan joz goia. Goizaldean elur-maila 1.000 metroan kokatuko da.

Bihar. Giro lasai eta atseginа. Goizean hodeiak eta ostarteak tartekatuko dira, baina ostarteak ugariak izango dira eta giro argiaz gozatu ahalko da. Eguerditik aurrera hodeitza trinkotzen joango da, egun amaierarako zeru estalia geratuz. Hala ere, ez da euririk espero. Haizeak hego/hegomendebaldeko norabidea izango du, tarteka bolada biziak utziko dituelarik. Tenperatura igo eta 14-15 graduan joko du goia.

TOLOSALDEKO ATARIAk ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Inauterietako Triviala egingo du ATARIA-k bihartik asteartera bitarte, egunero, Instagram bitartez, inauteriekin lotutako galderak zabalduz; parte hartzaileen artean sariak zozkatuko dira

Inauterizaleentzat erronka

Pasa den urteko Ostegun Gizenean, Pintxana txarangako kideak. Iaz 80 urte betez zituen. IRATI SAIZAR

Erredakzioa

Ez da txupinazorik izango bihar Tolosako Plaza Zaharrean, ez da, beraz, jairik lehertuko eta ez da txarangen atzetik herritarrak saltoka ikusiko. Asteartita bitarte errepikatuko den egoera izango da, aurten ez baita inauteririk izango. ATARIA-k, baina, inauteri giroa pixka bat zabaltzeko helburuz, proposamena luzatuko die bere irakurleei.

Hain justu, inauterietako Trivialean jolasteko aukera izango dute herritarrek, bihartik datorren asteartera bitarte, hau da, Ostegun Gizenetik Asteartitara. ATARIA-k inauterien inguruko galderak egingo ditu egunero Instagram bitartez. Galdera horiek inauterietako ohiturei buruzkoak izan daitezke, bitxikerien ingurukoak, edota historiari buruzkoak.

Beraz, euren burua inauterizaletzat dutenentzat eta hori lau haizeetara zabaltzea gustuko dutenentzat erronka ezin hobea izan daiteke, egunero proposatuko diren galderen erantzuna jakitea ezinbestekoa baita inauterizale peto-petoa izateko. Egunero tarte atsegina igarotzeko aukera izango da, eta horrekin batera, sariak eskuratu ahalko dira. Izan ere, galderak erantzuten dituztenei posta elektroniko bat uzteko eskatuko zaie, eta asteazkenean, Hausterre Egunean, zozketa egingo da. Irabazle suertatzen direnek ATARIA digitaleko 6 hilabeteko harpidetza eta Mahalako saskia eskuratuko dute.

ATARIA-k herritar guztiak animatzen ditu, bakarka, binaka edo taldeka, proposaturiko jolasean parte hartzera.

ATARIA IRRATIAN
KOLABORATZAILEAK BEHAR DIRA, SAIO LIBREAK EGITEKO.
Astero, bi astez behin edo hilabetean behingo saioak (aukeran)
Banaka, binaka...
Animatu eta sortu zure saioa!
HARREMANETARAKO: 943 65 56 95 / ATARIA@ATARIA.EUS

zozketak

Atarikideentzat bi sarrera dauzkagu

Caminho Longe dokumentalaren proiekziorako 2 sarrera
Otsailak 18, 19:00, Gurea Antzokia (Amasa-Villabona)

Atarikideentzat bi sarrera dauzkagu

Euskal Barrokensembler en kontzerturako 2 sarrera.
otsailak 17, 19:00, Leidor Antzokia (Tolosa)

Zozketetan parte hartzeko Osteguna 11:00ak arte: 943 65 56 95 edo www.ataria.eus